

A I A R A L D E A

Jaietan

2018KO JAIETAKO
GEHIGARRI BEREZIA



SAN JOAN ASTOBITZA
LAUDIO
Ekainak 22-24

SANPEDROPEKOAK
LAUDIO
Ekainak 30

ARAKALDO
Uztailak 13-18

ARETA
Uztailak 25-29

UGARTE
LAUDIO
Uztailak 29 - Abuztuak 4

SAN JOAN ASTOBITZA (LAUDIO)

Su artean joko dute

Enkore, Anita Parker eta Revolta Permanentek

Mr. Pongo Band taldea eta Urrats eta Akerbeltz erromeriak ere igoko dira San Joan Astobitzako Jailetako oholtzara. Krosak, suak, dantzek eta beste hainbat ekintzek osatuko dute hiru eguneko egitaraua.



Anita Parker taldea igoko da oholtzara larunbatean, besteak beste. **Anita Parker**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Asteburu honetan ospatuko dira Laudioko San Joan Astobitzako jaiak. Ostiralek igandera luzatuko da festa, hainbat ekintzaz osatutako egitaraua lagun.

Musika eskaintza oparoa prestatu dute auzoko jai batzordeko kideek. Ostiralean lau talde igoko dira oholtza gainera: Mr. Pongo Band, Revolta Permanent, Enkore eta Urrats erromeria. Larunbatean, aldiz, Anita Parkerren elektro-swing doinuek girotuko dute auzoa, eta Akerbeltz erromeria arduratuko da jaia goizeko ordu txikietara arte luzatzeaz.

Arratsaldeko eskaintza

Baina dena ez da musika izango. Egunean zehar ere hainbat ekintzaz gozatzeko parada egongo da San Joan Astobitzako zelaian. Ostiralean haurrentzako jolasak egongo dira Arima taldearen eskutik. Galtzagorri kultur elkarteko kideek, al-

Ttuntturroko joaldunek eta Akelarreko dantzariak girotuko dute sua

“Kutsu herrikoi eta euskalduneko jaiak” dira San Joan Astobitzakoak, antolatzaileen esanetan

diz, buruhandiak igoko dituzte. San Joan Astobitzako XIII. Kro-sa egingo da larunbatean. Parte hartzaileek 9 kilometroko ibilbidea egin beharko dute auzoko mendietan barrena.

Gaueko hamarretan piztuko da sua, Ttuntturro taldeko joaldunen ostean eta Akelarre dantza taldeak giroturik. Igandean goizera mugatuko da egitaraua. Ziza dastatzea egongo da Laudioko Mikologia Elkartearen eskutik. Itxarkundia dantza taldeko kideak ere bertaratuko dira emanaldia eskaintzera. 12:30ean artzain txakur txapelketa egingo da Astobitzako zelaian. Handik ordu erdira izango da meza, eta Andere abesbatzak kantatuko du jarraian.

Jai ezberdinak

"Bereziaketa ezberdinak" dira San Joan Astobitzako jaiak, antolatzaileek nabarmendu dutenez. "Adin guztietako jendea biltzen da eta kutsu herrikoi eta euskalduna dute. Apurka-apurka indartzen ari dira gainera".

06.22 **Ostirala**

18:00 // Haur jolasak (Arima)
19:00 // Buruhandiak (Galtzagorri Kultur Elkarte)
20:00 // Kontzertuak: Mr. Pongo Band + Enkore + Revolta Permanent + Urrats erromeria



06.23 **Larunbata**

20:00 // XIII. Kro-sa



21:00 // Joaldunen igoera (Ttuntturro)
22:00 // San Joan sua eta Akelarre dantza taldea



23:00 // Kontzertuak: Anita Parker eta Akerbeltz

06.24 **Igandea**

12:00 // Ziza dastatzea (Laudioko mikologia elkarte)
12:30 // Euskal dantzak (Intxarkundia dantza taldea)
12:30 // Artzain txakur txapelketa (Astobitzako zelaian)
13:00 // Meza eta, Andere abesbatzaren emanaldia

SAN JOAN ASTOBITZAKO

Jaiak · Laudio 2018/06

Jai herrikoiez gozatu eta talorik goxoenak dastatu nahi badituzu...ez galdu zita!

**22
OST**

18:00 · Haur Jolasak (Arima)
19:00 · Buruhandiak (Galtzagorri KT)
20:00 · Kontzertuak

**MR. PONGO BAND
ENKORE
REVOLTA PERMANENT
URRATS ERROMERIA**

**23
LAR**

20:00 · XIII. Kro-sa
21:00 · Joaldunen igoera (Ttuntturro)
22:00 · San Joan sua eta Akelarre dantza taldea
23:00 · Kontzertuak

**ANITA PARKER
AKERBELTZ**

**24
IGA**

12:00 · Ziza dastatzea (Laudioko mikologia elkarte)
12:30 · Euskal dantzak (Itxarkundia dantza taldea)
12:30 · Artzain txakur txapelketa (Astobitzako zelaian)
13:00 · Meza eta jarraian Andere abesbatzaren kantaldia

SANPEDROPEKOAK (LAUDIO)

Olinpiada herrikoiak izango dira Sanpedropekoen osagai berria

Bi egun irautetik egun bakarrekoak izatera pasako dira aurten Sanpedropekoak. Hala ere, berrikuntza ugari izango ditu egitarauak, olinpiada herrikoiak eta barbakoa egingo

baitituzte iluntzean, Batzalarrin kalean. Hala ere, Sukalki txapelketa izango da jaien plater nagusia, azken urteetako joerari eutsiz.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Berrikuntzekin datoz aurtengo Sanpedropekoak. Laburragoak izango dira aurtengo jaiak, larunbatean egingo baitira ekintza guztiak. Hala ere, egitarau oparoa prestatu dute Jaiak Koordinakundeko kideek, goizetik gauera arte luzatuko dena.

"Urtez urte apustu ezberdinak egin ditugu Sanpedropekoek begira", azaldu du Ainhoa Garaiok. Antolakuntza taldeko kideak azaldu du sukalki lehiaketak jarraituko duela egitarauko plater nagusia izaten. "Ekin-tzarik potenteena da, 15 kazola inguru aurkezten dira", nabarmendu du. Bertso-saio baten bidez girotuko dute lehiaketa, eta bingoa egingo dute bazkariaren ostean, aurreko urteetako ildoari jarraiki.

Aldaketak

Berrikuntza ugari sartu dute aurtengo edizioan. Kokapena da horietako bat. "Azken urteetan Herriko plazan egon gara. Aurten, aldiz, Aldai plazan izango dira ekintza gehienak".

Iluntzean izango da beste berrikuntza. Aurten ez da kontzerturik egongo. "Olinpiada herrikoiak" eta barbakoa egingo dituzte, Batzalarrin kalean. Garaiok aurreratu du sanroketan

egiten dituzten jokoan tankera-koak prestatu dituztela olinpiadetarako. "Batzalarrin kalean eginda espero dugu jende gehiago animatzea parte hartzera, ez soilik koadriletako kideak".

Abuztuko jaien esperoan

Abuztuko sanrokeen hitzau-rrera izan ohi dira sanpedropekoak. Koadriletako kideak euren jantziak soinean ateratzen dira kalera, abuztuko jaietan bezala.

Sanroketan egingo dituzten ekintzak prestatzeari ekin diote dagoeneko Jaiak Koordinakundeko kideek. "Abuztuaren 17a izango da egun indartsuena, aurten ostirala delako", jakinarazi du Garaiok, "paella txapelketa, jolasgune erraldoia eta cluedo-poteoa egingo



Sukalki txapelketa izango da jaietako plater nagusia. Aiaraldea.eus

ditugu egun horretan". Horrez gain, "buelta bat" eman nahi diote baita ere Berakatz Eguneko bazkariari. "Zeozer berria egitea dugu buruan". Gainon-

tzeko ekintzei dagokienez, aurreko urteetako "eskema bera" jarraitzeko asmoa dute koordinakundean parte hartzen duten koadrilek.

06.30**Larunbata**

9:30-13:30 // Sukalki txapelketa, Aldai plazan



12:30-13:30 // Bertso saioa, Aldai plazan
13:30-14:00 // Sukalkien epaiketa, Aldai plazan
14:00-16:00 // Bazkaria, Aldai plazan
16:00-18:00 // Bingoa
18:00-21:00 // Kalejira
21:00-23:00 // Olinpiada herrikoiak eta barbakoa, Batzalarrin kalean

EKAINAK 30

SAN PEDROPEKO

SUKALKI TXAPELKETA

BERTSO SAIOA

SUKALKIEN EPAIKETA

BAZKARIA

BINGOA

KALEJIRA

OLINPIADA HERRIKOIAK + BARBAKOA




LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

NEURRIRA EGINDAKO JAIETARAKO PRODUKTUAK

KAMISETAK, ZAPIAK, ...
BEHAR DUZUNA ESKATU
ETA LORTUKO DUGU ///

**SERIGRAFIA, BORDATUA,
BINILOA, INPRESIO DIGITALA**



G! Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2, LAUDIO

94 672 65 43

pro@grafiksarea.com

www.grafiksarea.com

ARAKALDOKO JAIK

Yogurinha Borova eta Feos Pero Majosek girotuko dute Arakaldo

Hiru egunez luzatuko dira Arakaldoko Jaiak, uztailaren 13tik -ostirala- 14ra. ETB1 kateko 3zpa4 ikuskizuna egongo da txupinazoaren ostean.



Yogurinha Borova artista audioarra arituko da Feos Pero Majos bertsio taldearekin batera. **Yogurinha Borova**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Egitarau oparoa prestatu dute Arakaldoko bizilagunek herriko jaiei begira. Uztaileko bigarren asteburuan ospatuko dituzte, hilaren 13tik -ostirala- 15era.

Herri txikia izan arren, musika eskaintza esanguratsua izango du Arakaldok, eskualdeko gainontzeko herrietatik jendea bertaratze modukoa. Ostira-lean Yogurinha Borova artista eta musikari audioarra eta Ugaoko Feos Pero Majos bertsio taldea igoko dira oholtza gainera, oraindik zehazteke dagoen beste talde batekin batera.

Larunbatean ere egongo da abestu eta dantzatzeko parada, erromeria eta disko-dantza egongo baitira iluntzean.

Umeentzako eskaintza

Ume eta gazteentzako eskaintza oparoa ere egongo da jaie-

Umeentzako eskaintza oparoa egongo da herrian: apar-festa, 3zpa4 taldearen ikuskizuna...

Ez dira faltako aurreko urteetan eginiko ekintzak, herri kirol parte-hartzaileak eta tortilla txapelketa kasu

tan. Txupinazoaren ostean musika ikuskizuna eskainiko du 3zpa4 taldeak. Telebista programa propioa du taldeak ETB1 katean, eta *Go!azen* telesaileko protagonistekin dauka lotura.

Larunbat goizean umeentzako jolasak eta apar festa egongo dira. Arratsaldean, aldiz, puzgarriak eta txokolatada. Igandean ere egongo da familia osoarentzako zita bat: *Trakamatraka* ikuskizun-tailerra. Tresna birziklatuen bidez musika nola egin ikasi ahal izango da bertan.

Betiko ekintzak

Ez dira faltako ezta azken urteetan Arakaldoko Jaieen ikur bihurtu diren ekintzak. Larunbat arratsaldean tortilla txapelketa egingo dute udal-txe aurrean. "Nahiko arrakastasua da ekimen hori", azaldu du Jabi Asurmendi Arakaldoko alkateak, "15-25 tortilla inguru aurkezten dira".

07.13 **Ostirala**

19:00 // Txupinazoa eta 3zpa4 ikuskizuna
21:00 // Yogurinha Borova + Feos Pero Majos + Konfirmatzeke dagoen beste talde bat

07.14 **Larunbata**

Goizean trikitixa kalejira eta umeentzako jolasak
13:30 // Apar festa
17:00 // Rokodromoa, tirolina, puzgarriak, tortilla txapelketa eta herri kirol

parte-hartzaileak
Iluntzean: Odolostejana, bolo txapelketa, txokolatada, erromeria eta disko-festa

07.15 **Igandea**

Goizean txistulari kalejira
12:00 // Igel txapelketa eta Trakamatraka musika ikuskizuna
14:30 // Herri bazkaria

07.18 **Asteazkena**

12:00 // Meza

 **MAHOU
SANMIGUEL**

GARBIÑE ZUGAEN
687 56 60 75 -GALDER-

Gora Arakaldoko jaiak!

ARAKALDOKO JAIK

Uztailak 13, 14, 15 eta 18

Kontzertuak
Umeentzako jolasak · Aparra
Eskalada-murrua · Erromeria
Diskofesta · Bolo
Tortilla eta igel txapelketa

ONDO PASA JAİETAN!



 **EUROMASTER
TALLERES
PICAZA**

**ONDO PASA
JAİETAN!**

 MEKANIKA
 OLIOA
 BALAZTAK Pastillak eta diskoak
 DIAGNOSIA BKT diagnostika

 ESEKIDURA
 ISILAK Ihes lerroak
 PNEUMATIKOAK Marka guztiak
AUTO GARBİKETAK

La Isla auzoa z/g, Arakaldo 94 672 74 81 - 656 701 399

ARETAKO JAIK

Aretako Gazte Asanblada izango da jailetako pregoilari eta txupineroa

Mikel Urdangarin, Igor Arzuaga, Barau, Hilean Bariku Bat, Isildu zaitez, Skabidean, La Txirla Records, Picadura eta Ostabe taldeek joko dute, Ingo al deu? eta Ozen erromerietan

batera. Gastronomiak ere pisu handia izango du Aretako jailetan, tortilla, marmitako eta paella txapelketak egingo baitira, besteak beste.



Uztailaren 25ean -asteazkena- hasiko dira jaiak. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bñares

Uztailaren 25ean hasiko dira aurtien Aretako Jaiak. Arratsaldeko seietan pilatuko da jendea Kultur Etxeko balkoiaren azpian, pregoia entzun eta jaiari hasiera emateko prest. Aurtien Aretako Gazte Asanbladari egokitu zaio pregoilari eta txupinero izatea. Ibilbide laburra izan arren, nahiko talde aktiboa da gazte asanblada. Jaiari begira bi ekin-tza prestatu ditu: jaien bigarren

egunean egingo diren umeentzako tailer eta jolasak eta hirugarren egunean egingo den ElektrotzarA.G.A.

Bost egunez luzatuko da jaiak, hainbat motatako jarduerak lagun. "Adin guztientzako egitaraua osatu dugu", azaldu du Unai Llanok. Jai batzodeko kideak aipatu duenez, gastronomiak pisu berezia du jailetan: "Zaletasun handia dago, eta horrek isla izango du jailetan: Tortilla, paella eta marmitako txapelketak egongo dira". Umeentzako tailer gastro-

Rafa Olabarriaren omenezko pilota txapelketa egingo dute jailetan

nomikoa errepikatuko dute baita ere, "iaz izan zuen arrakasta ikusita".

Musika eskaintza

Musikak ere pisu handia izango du jailetan, egun guztietan egongo baitira kontzertuak. Lehen egunean Hilean Bariku Bat talde orozkoarrak joko du, arratsaldean. Gaubela egongo da gero Kultur Etxean, Igor Arzuaga eta Mikel Urdangarinen eskutik. Ostegunean -uztailak 26- Barau eta Ostabe taldeek joko dute. Ostiralean, aldiz, tributu gaua egingo dute, La Txirla Records eta Picadura taldeekin. La Polla Records eta Barricada taldeen bertsioak jotzen dituzte bi talde horiek, hurrenez hurren. Ingo al deu? erromeriak hartuko du jarraian festa luzatzearen ardura.

Larunbatean, aldiz, rock eta ska doinuek hartuko dute txosnaguneko ohol-tza, Isildu zaitez eta Skabidean taldeen eta Ozen erromeriaren eskutik.

Rafa Olabarria gogoan

Rafa Olabarria ere gogoan izango dute jailetan. Martxoan zendu zen Herriaren elkarteko presidentea, eta bere omenezko pilota txapelketa egingo dute jailetan. Ostiralean -uztailak 27- jokatuko dira finalak, 17:00etan frontoian.

07.25 Asteazkena

17:30 // Tortilla txapelketa
17:30 // Soka Laudiotik Aretara
18:00 // Pregoiaren irakurketa, txupinazoa eta jaien hasiera Aretako Gazte Asanbladaren eskutik
18:15 // Aretako buruhandien eta Sorginlarrenen kalejira
18:30 // Kalejira Aretako txistulariekin
19:00 // Artzain txakur lehiaketa Santa Anan
19:30 // Erromeria Hilean Bariku Bat taldearekin
19:45 // Tortilla Txapelketaren sari banaketa eta dastatzea, Jubilatuen Klubean
21:00 // Gaubela Kultur etxean Igor Arzuaga eta Mikel Urdangarinekin

07.26 Osteguna

9:45 // Alpitxura igoera
10:00 // Mugarrietara bisita
12:00 // Umeentzako gastronomia tailerra
12:00 // Santa Anaren omenezko meza
13:00 // Dantzak Ubixeta taldearekin



EL TUNEL
TABERNA-JATETXEA

Otar-teko gozoak jailetako egun eta ordu guztietan

Ondo pasa jailetan!

Gasteiz kalea 5, ARETA-LAUDIO Tel. 94 672 05 58

ONIEVA AUTOBUSAK



Informazioa eta erreserbak:
94 672 64 45
Larrialdiak: 619 76 66 51

GORA ARETAKO JAIK!

71 ESERLEKU ARTEKO AUTOBUSAK

WWW.ONIEVA.COM
onieva@onieva.com

xarmanta jatetxea

- Eguneko menuak
- Karta eta menu bereziak
- Ospakizunak

Ondo pasa jailetan!

Tel. 94 672 47 34
Zuloaga auzoa, ARRANKUDIAGA

ARETAKO JAIK

Aretako traila, iazko arrakasta errepikatzeko prest

Arratsaldez egingo da norgehiagoka aurten. Uztailaren 28an -larunbata- izango da, 18:00etan. Iaz izandako harrera ona errepikatzeko espero dute antolatzaileek.

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Iaz egin zuten Aretako Trail Lasterketaren lehen edizioa. Nahiko arrakastatsua izan zen, antolatzaileen nabarmendu dutenez. “100 kirolari biltzea zen gure asmoa, eta azkenean dortsalik gabe geratu ginen”, aipatu du Unai Llanok.

Arrakasta horren ondorioz erabaki dute bigarren edizioa egitea, “Aiaraldeko zein eskualdetik kanpoko jendea” animatzeko asmoarekin. “Babesle eta laguntzaileek gehiago lagundu digute aurten, iazko arrakasta ikusita”.

Arrakastaren gakoa

Zein izan da arrakastaren gakoa? Mugagabe trailaren eragina nabarmendu du Llanok. “Lasterketa hori nahiko arrakasta-



Arrakastatsua izan zen iazko edizioa. Aiaraldea.eus

tsua da, eta horren ondorioz kirolari asko zaletu dira hemen inguruko mendietatik ibiltzera”. Aretakoa oso lasterketa anitza dela nabarmendu du jai batzordeko kideak. “Korrikalariak errepidetik eta harrien zein lurrraren gainetik aritzen dira lasterka”.

Ibilbideari dagokionez, iazkoaren antzekoa izango da lasterketa. “Herritik atera eta bertan bukatzen da, eta Aretako mendi bakarra, Alpitxu, zeharkatzen du, Goikoganerekin batera”, azaldu du Llanok. 12 kilometro egin beharko dituzte korrikalariak guztira, 750 metroko desnibel positiboarekin.

Baina egongo da iazko edizioarekiko aldaketa nabarmen bat: aurtengoa arratsaldean izango da. 18:00etan abiatuko dira parte hartzaileak Aretako zubitik.

Izena emateko epea irekita dago dagoeneko Sportmaniacs.com atarian, uztailaren 23ra arte. “200 parte hartzaile egon ahalko dira gehien jota”, adierazi du Llanok, eta aurreratu du aurtengo edizioa ondo ateratzen bada aurreantzean Aretako Jailetako ekintza finko bihurtuko dutela traila.

14:00 // Umeentzako bazkaria
14:30 // Nagusien bazkaria eta omenaldia, Onievan. Jarraian dantzaldia egingo da
17:00 // Umeentzako tailer eta jokoak, gazte asanbladaren eskutik
19:00 // Federatuen pilota partiduak, frontoian
21:00 // Ostabe eta Barau taldeen kontzertuak
22:00 // Berbena jubilatuen klubean

07.27 Ostirala

11:00 // VII. Paella Txapelketa



12:00 // Poteo joteo
14:30 // Sari banaketa
17:00 // Rafa Olabarriaren I. Memorialeko eskupilota partiduen finalak
18:00 // Elektrotzar.A.G.A.
18:00 // Buruhandiak Galtzagorri kultur elkartearen eskutik
19:00 // Zunba
20:30 // Dantza poteoa Untzuetarekin
23:00 // Kontzertuak: La Txirla Records + Picadura + Ingo al deu?

07.28 Larunbata

10:00 // Marmitako txapelketa

12:00 // Igelaren jokoa Aratz tabernaren aurrean
13:00 // Aretako txistulariei omenaldia
13:00 // Laudioko Arloteen bisita
14:00 // Marmitako txapelketako sarien banaketa



18:00 // Bolo arabarraren txapelketa
18:00 // II. Areta Trail Txapelketa
21:00 // Parrillada herrikoa
23:00 // Kontzertuak: Isildu zaitez + Skabidean + Ozen erromeria

07.29 Igandea

11:00 // Herri kirolak: Gizonezkoen txinga eta emakumezkoen



zakulari txapelketak
12:30 // Asto lasterketaren aurkezpena
13:00 // Asto lasterketa
15:00 // Herri bazkaria
18:00 // Joko herrikoiak
20:00 // Dantza plaza
23:00 // Jaien amaierako traka

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Gora Aretako jaiak!

ARETAKO KULTUR ETXEA TABERNA



Gora Aretako jaiak!

Uztailaren 25etik 29ra

ASTO LASTERKETA HERRI KIROLAK BURUHANDIAK

KONTZERTUAK DANTZAPOTEOA GASTRONOMIA LEHIAKETAK

JOLASAK TRAIL LASTERKETA TAILERRAK

ARETAKO JAI BATZORDEA



Bar C.S.C. Santa Ana



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

- PINTXO ESKAINTZA ZABALA
- RABA GOXO-GOXOAK
- KOKTELAK PREZIO ONEAN

Patricia Bilbao urbanizazioa 4, LAUDIO
678 55 05 97

UGARTEKO JAIK (LAUDIO)

“Asko arriskatuko dugu Ugarteko Jaia abuztuan eginda”

AITOR OTAOLA SORIA (LAUDIO, 1970)

UGARTEKO JAI BATZORDEKO KIDEA DA. HIRU URTE DARAMATZA AUZOKO JAIK ANTOLATZEN.

Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares**Hiru urte daramazue egungo jai batzordetik Ugarteko jaiak antolatzen. Zer nolako ibilbidea egin duzue?**

Geroz eta jende gutxiago gaude jai batzordean, auzoko jendeak ez du asko parte hartzen. Lau pertsona gaude bakarrik eta asko kostatzen zaigu jai on batzuk antolatzea. Gauzak hala, animatuak gaude jaiak egiteko baina, era berean, ez dugu animo askorik. Ez dakigu datozen urteetan antolakuntzan jarraituko dugun.

Aurten abuztuan izango dira jaiak. Zer dela eta?

Duela bi urte Audioko Udala Aretako eta Ugarteko jai batzordeekin bildu zen eta esan zigun ezin zirela bi ospakizunak aldi berean egin, azpiegitura nahikorik ez zegoela argudiatuta. Akordio batera iritsi ginen: santuaren eguna asteburutik hurbilen zuen jaiak hartuko zuen asteburua.

Aurten Ugarteko santua asteartean da. Horregatik, astelehenetik ostegunera egitea edo abuztuko lehen asteburuan Gasteizko jaien aurka lehiatzea baloratu behar genuen. Azkenean larunbaterarte luzatu ditugu jaiak, baina arriskua oso handia da, aukera asko daudelako jende gutxi bertaratzeko. Musika taldeek dirutza balio dute eta barran kontsumoa egon behar da diru hori berreskuratzeke.

Datorren urtean ere horrela izango da, daten kontuengatik. Jaiak dagoeneko ez dira lehen zirena. Gaitasun ekonomiko handiagoa zegoen lehen, eta nabaritzen da aldea. Jai itxurosoak izango dira aurtengoak, baina beldurra ematen digu abuztuan egiteak.

Ugarteko jaien maila jaitsi egin dela diozu, baina oraindik ere jende asko igotzen da auzora.

Oso jai erosoak dira, erdigunetik oso gertu daudelako. Urtero jende asko igotzen da. “Botelloiak” kalte handia egiten du, hala ere. Batzuetan askoz jende gehiago dago

futbito zelaian edaten txosnetan baino. Baina ezin da hori ekidin.

Musika eskaintzan jarri duzue indarra azken bi urteetan. Aurten ere?

Bai. Gure hasierako asmoa herriko taldeak ekartzea zen, baina arazo bat dago: ez dira musikari profesionalak, eta gehienek zail dute abuztuan jotzeko, taldekide bat edo beste kanpoan dagoelako gehienetan.

Ugarteko torneoak ere izan da jaien ikurretako bat.

Aurten jaiak baino lehen amaituko da txapelketa, ezin delako abuzturarte luzatu. Geroz eta talde gutxiago daude, eskoletan ez dagoelako futbitoa praktikatzeko ohiturarik. Torneoak dela eta arratsaldero egongo gara plazan jarri dugun txosnan, astelehenetik igandera, uztailerarte. Txapelketara eta jaien antolakuntzara bideratuko dugu bertan lortzen dugun dirua. Baina lan handia da, handiegia lau pertsonaren artean egiteko.

BORDADOS ITXITEX
ITZAIK

Zure ideiak bordatzen ditugu

HAS ZAITEZ JAIETAKO KAMISETAK PRESTATZEN! 3,5€tik aurrera



AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

692274406 itxitex@gmail.com
Aiala, 5 01470 AMURRIO

PESCADOS La Castreña **MARISCOS**



Ondo pasa jailetan!

Ugarte kalea 13, LAUDIO
94 656 95 29

UGARTEKO JAIK 2018
Uztailak 31 eta abuztuak 2, 3 eta 4

- Kontzertuak
- Herri bazkaria
- Bakarriketak
- Herri kirolak
- Mus txapelketa
- Puzgarriak



UGARTEKO JAI BATZORDEA

Gorbea
Taberna

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



Ugarte kalea 1
Laudio
94 671 29 75

UGARTEKO JAIK (LAUDIO)

Auzokide zein bisitariarentzat pentsatu eta antolatutako jaiak

Laudioko eta eskualdeko jende ugari du Ugarteko jaietara bertaratzeko ohitura. Gauzak hala, auzokideentzako ekintzak publiko zabalagobatizuzendutako jarduerekin nahasten ahalegintzen dira jai batzordeko kideak, gaueko eta eguneko giroak uztartuz.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ia astebete iraungo dute aurtengo Ugarteko jaiak. Uztailaren 31n izango da txupinazoa, baina aurreko igandetik egongo da giroa auzoan, egun horretan egingo baita Mus Azkar Txapelketa. "Hiru urte daramagu norgehiagoka hori antolatzen", azaldu du Aitor Otaola Soriak, "80 bikote baino gehiago egon ziren iaz".

Duela hiru urte sartu zen Otaola Ugarteko jai batzordean, beste kide batzuekin batera. Ilusioz eta gogotsu ekin zioten lanari, eta hainbat berrikuntza sartu zituzten egitarauan. Musika eskaintzan jarri zuten indarra, hainbat estilotako taldeen emanaldiak eskainiz. Aurtengo egongo da zer entzun auzoan. Boca Beats bikotea igoko da oholtzara ostiralean, umorea eta musika uztartzeko. Larunbatean, aldiz, Fito y los Fitipaldis taldearen tributu batek joko du. Bi egunetan egongo da parranda goizeko ordu txikieta arte luzatzeko aukera, disko festaren erritmora.

Bingoa, jaietako izarra

Otaolaren arabera, nagusien bazkariaren osteko bingoa izan zen iazko ekintzarik arrakastatsuen eta, aldi berean, merkeen. "Aurtengo, baina, ez dugu ber-



Jende ugari bertaratu ohi da auzora jaiak gozatzera. Aiaraldea.eus

Rafa Olabarriaren omenezko pilota txapelketa egingo dute jaietan

bena jarri bazkalosterako. Bakarrizketa bat egongo da horren ordez, ETBko aktore batzuen eskutik".

Larunbat goizeko tokiko produktuen azokan ere berrikuntza bat txertatu dute. "Egurra lantzen duten bi bizilagun bertaratuko dira eta pieza bana egingo dute, ondoren zozketa-tzeko", jakinarazi du Otaolak, "motozerrarekin aritzen den pertsona bat bertaratuko da baita ere eta hainbat lan egin-

go ditu. Horiek ere zozketatuko ditugu".

Jai erosoak

Jai batzordekoen arabera, gerroz eta jende gutxiago bertaratzeko da Ugarteko jaietara, baina ez dira gutxi urtez urte auzora igotzen direnak. Otaolaren aburuz, "gertutasuna" da arrakastaren gakoetako bat. "Herriaren erdigunetik bi pausora dago auzoa, eta horrek asko errazten du jendea bertaratzea".

07.29 Igandea

III. Mus Azkar Txapelketa

07.31 Asteartea

12:00 // Jaiaren pregoia eta txupinazoa

13:30 // Azeripotok girotutako poteoa

14:30 // Atzoko gaztearen bazkaria

17:00 // Bingo herrikoia

19:30 // Bakarrizketa

08.01 Asteazkena

17:00 // Umeentzako jolasak

08.02 Osteguna

16:00 // Umeentzako puzgarriak, monopatinak eta disko dantza

08.03 Ostirala

18:00 // Hime eta zunba erakustaldiak

19:30 // Herri kirolak

22:00 // Bocabeats



00:00 // Disko dantza

08.04 Larunbata

11:00 // Tokiko produktuen azoka

12:00 // Egur lanketa erakustaldia

15:00 // Herri bazkaria

22:00 // Fito y los fitipaldis-en tributu

00:00 // Disko dantza

UGARTE

OKINDEGIA GOXOTEGIA

Etxean egina

Alberto Acero 4, LAUDIO
94 611 94 64

Ugarte kalea 3, LAUDIO
94 403 88 09

UGARTEKO ESTANKOA

LOTARIA NAZIONALA
LOTARIA PRIMITIBOA
BONOLOTO
EUROMILIOIA
KINIELAK

Ondo pasa jaietan eta zorte on!

Ugarte 6, LAUDIO - 946 720 869

CAFE-BAR EL POZO

Hilabeteko azken igandean
ARTISAU-PROFESIONALEK
prestatutako
PULPO A FEIRA
PREZIO HERRIKOIAK!

ERDI ETA FROGATU
UZTAILAREN 29AN!

Ugarte kalea 2, behe (Laudio)

ULTRAMARINOS SALLES

Ondo pasa jaietan!

Ugarte kalea 10 (Laudio)
94 672 05 63